

Silvia Abadia

MAIZTERREN BORROKA



ETXEBIZITZA, BORROKA GAI

“32 urte ditut, eta egun, Sindicat de Llogateres-en soldatapean gabiltzan hiru lagunetako bat naiz. Komunikazio teknikaria naiz antolakundean. 18 urterekin iritsi nintzen Bartzelonara, ikastera, nire herritik, Franja de Ponent [Aragoi eta Katalunia arteko muga] eskualdeko herri batetik. Orduan hasi nintzen politizatzen, hasiera batean ikasle mugimenduan. Orain Bartzelonako Poble Sec auzoko etxebizitza sindikatuko militantea naiz. Kolektibitatean oinarritutako auzo eredu baten alde ari gara lanean”.

“Etxebizitzarena da gaur egun gizarteak bizi duen zapalkuntza nagusia”

Alokairuan bizi diren maizterrak antolatzen aitzindari da Bartzelonako maizterren sindikatua, *Sindicat de Llogateres*. Hiriburuan sortu eta zazpi sekzioetan hedatu ostean, berriki eratu dute Katalunia mailako antolakundea. Jabe handien aurrean, maizterrak elkartzea dute helburu, indarrak orekatu asmoz. Garaipen batzuk badituzte dagoeneko. Eta alokairua aukera duina, egonkorra eta segurua izan dadin ari dira borrokan.

✂ ANDER PEREZ ✎ JOSU SANTESTEBAN

Zer da Sindicat de Llogateres?

Orain dela bost urte jaiotako antolakundea da, etxebizitzaren arazoari modu kolektiboan erantzuteko sortua; zehazki, familiak itotzen ari den eta pertsonengan eragin basatia duen alokairuen burbuilari erantzuteko. Azken bost urteetan %30 igo dira prezioak, baina familien gaitasun ekonomikoa ez da igo. Burbuila horrek eragindako arazoetan oinarritzen da gure borroka.

Zertaz ari gara burbuilaz ari garenean?

Alokairuaren prezioen inflazioaz. Ez da fenomeno meteorologiko bat, urte askotako etxebizitza politiken emaitza baizik. 2008ko hipoteken krisiaren ondotik, milaka aktibo higiezin ezer ez balio izatera pasa ziren. Espainiako Gobernuak gainera kendu nahi izan zituen, eta horretarako, nazioarteko putre funtsei oparitu zizkion, huskeria baten truke, prezio irriarrietan. Aktibo horiek, uler dezagun, milaka pertsonen etxebizitzak dira. Bestalde, alokairuzko kontratuen iraupena murriztu zuten, bost urtetik hiru, eta ondorioz, hiru urtero etxe-

tik bota zaitzakete, edo kontratua berri %80ko igoerekin. Halako ehunka kasu ikusi ditugu.

Bigarren mailako eskubidea al da etxebizitza?

Etxebizitza eskubide gisara ulertu daiteke, edota merkatu ondasun gisara. Espainiako Estatuan, etxebizitza politikak beti ulertu du etxebizitza ondasun gisara. Huts egindako politika da.

Alokairua behin-behineko aukera gisara ulertu ohi da, gazteena, ikasleena. Zerikusirik ote du horrek?

Estatuko etxebizitza politikak jabetza pribatu gisa ulertu du etxebizitza. Are gehiago, obra publikoan eraikitakoaren %90 jabeen poltsikoetara pasa da. Baina hori ez da hala toki guztietan. Vienan, adibidez, parke publikoaren %40 alokairukoa da, eta aukera egonkorra eta segurua da. Hemen dugun ideia azken hamarkadetan bultzatutako politikek eragindakoa da. Baina Bartzelonan %60 bizi da alokairuan; gehiengoarentzat, beraz, jabetza ez da aukera bat. Ni lau aldiz bizi beharko nin-



"Jendea beldur eta sufrimendu handiarekin iristen da asanbladetara. Gero eta sistema indibidualistagoan bizi gara, eta ondorioz, egiturazkoak diren arazoak gureak bakarrik balira bezala bizi ditugu. Jendea ahalduntzen da ikusten duenean bere arazoa beste milaka lagunena ere badela".

tzateke Bartzelonako pisurik merkeena erosteko. Alokairuan bizitzea ez segurutzat hartzen da, hala delako: alokairuan ere bizi proiektu bat eraikitzeko aukera nahi dugu, etengabeko borroka batean bizi behar izan gabe.

Lan sindikatueta bilatu zenuten antolatzeko inspirazioa. Zergatik?

Etxebizitzarena da gaur egun gizarteak bizi duen zapalkuntza nagusia. Urte askotan, lan duin baten falta izan zen, hila-bete bukaerara iristea. Egun, noski, asko hobetu daitezke lan baldintzak, baina egonkorak dira nolabait. Baina horrek ez du zentzurik gero irabazien %50a alokairua ordaintzeko bada. Lan alorreko sindikatuek borroka oinordetza handia utzi digute. Milaka lagun antolatzeko gai izan dira. Etxebizitzaren alorrean jabe handien oligopolio bat baldin badago, antola gaitzen, indarrak oreka daitezke. Nola negoziatuko duzu zuk zure alokairua Blackstonekin, munduko inbertsio funts handienarekin? Aldiz, 500 maizter elkartu eta Blackstonekin negoziatzen badugu, edo ez dugula ordainduko esaten badugu, bada...

Jendea ahalduntzen dela, alegia.

Jendea beldur eta sufrimendu handia-

rekin iristen da asanbladetara. Gero eta sistema indibidualistagoan bizi gara, eta ondorioz, egiturazkoak diren arazoak gureak bakarrik balira bezala bizi ditugu, gure errua balitz bezala. Jendea ahalduntzen da ikusten duenean bere arazoa beste milaka lagunena ere badela, eta arazoa ez dela nahikorik kobratzen ez duela, edo ez duela bizitzan arrakastarik izan. Ulertzen du arazoaren jatorria politikoa eta ekonomikoa dela, eta norbere etxean gelditzeko modu bakarra borroka egitea dela.

Eta bada garaipenik?

Zorionez bai, bestela ez ginateke bost urte ondoren hemen egongo. Garaipen esanguratsuak dauzkagu: Goldman Sachs funtsak %60 igo nahi izan zuen ehundik gora etxebizitzaren alokairua. Bloke osoa antolatzeko lortu genuen, eta azkenean, igoera %15ekoa izatea lortu genuen. Ondorioz, antzeko egoeran zegoen jendea eredu hori errepikatzen hasi zen.

Berlinen etxe jabe handiak etxegabetzea onartu berri dute erreferendum batean. Eredu bat da zuentzat?

Noski. Erreferenduma ariketa demo-

kratiko ikaragarria izan da, eta tabu bat jarri du mahai gainean: zer egin hamarkadetan zehar nahi duten guztia egin duten espekulatuzaileen etekinak mugatzeko. Hemen ere badira tresnak putre funtsen pribilegioak eta espekulazioa mugatzeko. Irudimenez jokatu behar da.

Espainiako Gobernuak gazteentzako laguntza bono bat iragarri berri du.

Bonu horrek gazteen %1ari eragingo lioke. Horrekin dena esanda dago. Espainiako Gobernuak aukera historikoa du azken 30 urteetako lehen etxebizitza legea egin eta etxebizitzarako eskubi-dea bermatzeko. Antolakunde asko ari gara horretarako proposamenak egiten. Baina zoritxarrez ez gara jendea konbentzitzeko lanean ari diren bakarrak; lobby inmobiliarioak baliabide asko dituzte eguna ministroei telefonoz deitzen emateko. Zer gertatuko den? Neurri handi batean Gobernuaren aurrekontuak babes ditzaketen alderdi horien esku dago.

Eta borrokatzen denaren esku, ziurrenik.

Kalean egunero borrokatzen dugu, ostiaka, azpiko bizilaguna bota ez dezaten. Egunero ari gara etxegabetzeak gelditzen. ●